| | |
|---|---|
| **2022KO ABUZTUAREN 24KO EZ OHIKO BILKURAKO AKTA** | **ACTA SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO DE 24 DE AGOSTO DE 2022.** |
| Irurtzunen, Arakilgo Udaleko bilera aretoan, 2022ko abuztuaren 24ko 14.00tan, Udalbatza biltzen da ez ohiko bilkura ospatzeko deialdiaren arabera. | En Irurtzun, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento de Arakil, a las 14.00 horas del día 24 de agosto de 2022, se constituye la Corporación a fin de celebrar sesión extraordinaria conforme a convocatoria cursada. |
| Etortzen dira: | Asisten: |
| Presidentea: Oihana Olaberria Jaka. | Presidente: Oihana Olaberria Jaka |
| Zinegotziak: Juan Jose Madariaga Orbea, Irantzu Escudero, Alfonso Nuin. | Concejales: Juan José Madariaga, Irantzu Escudero, Alfonso Nuin |
| Idazkaria: Imanol Goñi Razquin Jauna. | Secretario: Don Imanol Goñi Razquin. |
| Alkate andrearen aginduz, bilkura hasi da eta deialdiko gai-zerrendari jarraituz, gai hauei buruz aritu dira: | Por orden de la Alcaldesa, se inicia la sesión siguiendo el orden del día de la convocatoria, siendo tratados los siguientes asuntos. |
| **1. AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTAREN ONESPENA.** | **1. APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.** |
| Espedientean, 2022ko uztailaren 13ko bilkurako aktaren ikusita. | Consta en el expediente el borrador del acta de la sesión celebrada el día 13 de julio de 2022. |
| **Udalbatzak aho batez erabaki du:** | **El Pleno acuerda por unanimidad:** |
| - 2022ko uztailaren 13ko bilkurako akta onartzea. | - Aprobar el acta de la sesión celebrada el día 13 de julio de 2022. |
| **2. IHABARKO HIGIEZIN BATEN EROSTEA** | **2. ADQUISICIÓN DE INMUEBLE EN IHABAR** |
| Alkateak azaldu du Ihabarko 14. Poligonoko 2. Partzela erosteko espedientearen xedea. Higiezin horren erostea da, alde batetik gazteriak adierazten duen etxebizitzaren beharrari erantzuteko, eta beste aldetik, dagoen ondare arkitektonikoa babesteko. Erostearen beste helburu bat da udalerrian biztanleria eta jarduera finkatzea. | La Alcaldesa explica que se trata de la adquisición de la parcela 2 polígono 14 de Ihabar. La adquisición de la parcela se realiza para atender la demanda de vivienda por parte de la juventud, proteger el patrimonio arquitectónico existente y con el objetivo de fijar población y actividad en el municipio. |
| Erosteko espedientean dago partzelaren tasazioa eta erosketaren egokitasunari buruzko txostena, hain zuzen ere, zuzeneko eskuraketa justifikatzen duena. | En el expediente de adquisición se encuentra la correspondiente tasación de la parcela y el informe de idoneidad y oportunidad que justifica la adquisición directa de la parcela. |

| | |
|---|---|
| Gaia aztertu ondoren, **Udalbatzak aho batez erabaki du:** | Visto cuanto antecede, **el Pleno acuerda por unanimidad:** |
| 1. Ihabarko 13. Poligonoko 2. Partzela erostea. | 1. Adquirir la parcela 2 polígono 14 de Ihabar. |
| 2. Erosketa gauzatzeko beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko Alkateari ahalmena ematea. | 2. Habilitar a la Alcaldesa para formalizar los documentos que sean necesarios para la adquisición. |
| **3. 19/2022 FORU LEGEKO, UZTAILAREN 1EKO 2. TITULUAN EZARRITAKO ARAUDIARI ATXIKIPEN PARTZIALA.** | **3. ADHESIÓN PARCIAL A REGULACIÓN CONTENIDA EN EL TITULO II DE LA L.F. 19/2022 DE 1 DE JULIO.** |
| Idazkariak azaldu du Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioko Departamentutik langileak egonkortzeko prozedurako deialdien ereduak helarazi dituela. Ereduak erabili ahal izateko 19/2022 Foru Legeko, uztailaren 1eko 2. Tituluan ezarritako araudiari atxikipena akordatu behar da. Ereduak eta 19/2022 Foru Legeko araudia dira oinarri on bat Arakilen langileak egonkortzeko prozedura kudeatzeko. Horregatik atxikipen partziala proposatu da deialdien ereduen merezimenduen baremoan Arakilgo gai propioak txertatzeko asmoarekin (kontzejuak dituzten udaletan esperientzia baloratzea hain zuzen). | El secretario explica que desde el Departamento de Administración Local del Gobierno de Navarra se han remitido modelos de convocatoria para los proceso de estabilización del personal. Para el uso de dichos modelos se requiere un acuerdo de adhesión a la regulación contenida en el Título II de la Ley Foral 19/2022 de 1 de julio de procesos de estabilización. Se considera que tanto los modelos como la regulación de la Ley Foral 19/2022 son una buena base para gestionar la estabilización de personal en Arakil. Se propone una adhesión parcial a fin de introducir en el baremo de méritos de los modelos cuestiones propias del Ayuntamiento (valoración de experiencia en municipios compuestos). |
| Gaia aztertu ondoren, **Udalbatzak aho batez erabaki du:** | Visto cuanto antecede, **el Pleno acuerda por unanimidad:** |
| **1**. 19/2022 Foru Legeko, uztailaren 1eko 2. Tituluan ezarritako araudiari atxikipen partziala akordatzea. | **1.** Acordar la adhesión parcial del Ayuntamiento de Arakil a la regulación contenida en el Título II de la Ley Foral 19/2022, de 1 de julio de procesos de estabilización. |
| **4. 2021EKO KONTUEN ESPEDIENTEA** | **4. EXPEDIENTE DE CUENTAS AÑO 2021** |
| Idazkariak azaltzen du, 6/90 Foru Legea,Tokiko Administrazio arautzen duenaren ezarritakoari jarraituz, 2021eko kontu Orokorra Udaleko Kontu Batzordeak onartu egin du eta ez dira jaso alegazioak edo oharrak. Beraz, eztabaida daiteke 2021eko kontuen onespena. | El Secretario toma la palabra para explicar que de conformidad con lo dispuesto en el la L.F. 6/90 de Administración Local de Navarra la Cuenta General ha sido sometida a informe de la comisión de cuentas no constando la presentación de reclamaciones, reparos u observaciones, corresponde en este momento someter la Cuenta General del |

| | |
|---|---|
| Gaia aztertu ondoren **Udalbatzak, aho batez erabaki du:**<br><br>- 2021eko kontuen ontzat ematea.<br><br>Egun bereko 15;15tan gai gehiago ez dagoenez, Alkate andreak bukatutzat ematen d ubilera. Nik, idazkaria naizen aldetik, akta hau jasotzen dut eta egon diren zinegotziek haien adostasuna azaltzen dute haien sinaduraren bidez. | ejercicio 2021 al Pleno de la Corporación.<br><br>**El Pleno acuerda por unanimidad:**<br><br>- Aprobar la Cuenta General del ejercicio 2021.<br><br>Siendo las 15:15 horas del mismo día y no habiendo más asuntos que tratar, la Alcaldesa da por terminada la sesión, de la que yo, el Secretario levanto la presente acta que firmando concejales asistentes manifestando así su conformidad. |